AURRERAPEN-DOKUMENTUA

AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA, BIZKAIKO 50.000 BIZTANLETIK BEHERAKO UDALEK 2018AN EUROPAR BATASUNAREN PROGRAMA ETA EKIMENETAN PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN AURRERAPENARI DAGOKIONA

Ahaldun Nagusiaren Kabineteak, Kanpo Ekintzako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, beharrezkotzat jotzen du Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte har dezaten sustatzea, Europar Batasunak eskaintzen dituen finantzaketa-aukerak aprobetxatzeko, Europako puntako bazkideekin lan egiteko eta tokiko proiektuak kanpoan ezagutarazteko.

a.- Arauketa berriaren bidez konpondu nahi den arazoa

Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte hartzeak finantzaketa-aukera berriak eskaintzen dizkie udalerriei, Estatuko, eskualdeko eta/edo tokiko finantzaketa-iturrien osagarri gisa. Horrez gainera, proiektu estrategiko handiagoak eta berritzaileagoak gauzatzeko aukera ematen du eta sektore bakoitzean punta-puntakoak diren Europako erakunde askorekin elkarlanean aritzea sustatzen du.

Europar Batasunak hainbat arlotako proiektuak finantzatzen ditu: gizarte politikak edo ingurumena, ekintzailetza, gizarteratzea, enplegua edo mugikortasuna, besteak beste. Europako oraingo finantzaketa-aldiaren (2014-2020) xedea da erronka hauek ardatz dituzten proiektuak laguntzea: krisia, gizarte-desberdintasunak, enplegu berriak, gizartearen zahartzea edo aldaketa klimatikoa.

DOCUMENTO DE AVANCE

TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DE LAS SUBVENCIONES DESTINADAS A PROMOVER LA PARTICIPACION DE LOS AYUNTAMIENTOS DE BIZKAIA DE MENOS DE 50.000 HABITANTES EN PROGRAMAS E INICIATIVAS DE LA UNION EUROPEA EN 2018

El Gabinete del Diputado General, a través de la Dirección General de Acción Exterior considera necesario promover la participación de los ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia en programas e iniciativas de la Unión Europea, con el fin de aprovechar las oportunidades de financiación que ofrece la Unión, trabajar con otros socios europeos punteros y dar visibilidad exterior a los proyectos locales.

a.- Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación

La participación en programas e iniciativas de la Unión Europea abre nuevas oportunidades de financiación a los municipios que son complementarias a las fuentes de financiación estatales, regionales y/o locales; permite llevar a cabo proyectos estratégicos más ambiciosos e innovadores; y fomenta el trabajo en colaboración con una gran variedad de entidades punteras europeas en cada sector.

La Unión Europea financia proyectos enmarcados en ámbitos diversos, como las políticas sociales o medioambientales, el emprendimiento, la integración, el empleo, o la movilidad. El actual periodo de financiación europea (2014-2020) está marcado por el apoyo a proyectos que afrontan retos como la crisis, las desigualdades sociales, los nuevos empleos, el envejecimiento de la sociedad o el cambio climático.

Hala ere, sarritan, toki-erakundeentzat oztopo gaindiezinak dira baliabide nahikorik ez izatea, prozeduren konplexutasuna, eskakizun tekniko, administratibo eta burokratikoak edo Europako programa eta ekimenetan parte hartzeko prestakuntza berezia duten langileak behar izatea.

Sin embargo, la falta de medios, la complejidad de los procedimientos, los requerimientos técnicos, administrativos y burocráticos, o la necesidad de disponer de personal con formación específica para la participación en programas e iniciativas europeas suponen para las entidades locales escollos insalvables en muchas ocasiones.

b.- Testu arauemailea onartzea beharrezkoa den eta aukerarik egokiena den ala ez

b.- Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo

Aipatutako oztopoak gainditzen laguntzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza-lerro espezifiko bat sortu nahi du 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten Bizkaiko udalerrientzat edo udalerri-elkartzeentzat, Europako programetan parte hartzeko proposamenak eta horretarako behar den dokumentazioa prestatzeak udalerriei eragiten dizkien kanpoko gastuen zati bat ordaintzeko.

Con el fin de ayudar a superar los obstáculos mencionados, la DFB tiene la intención de poner en marcha una línea específica de ayudas destinada exclusivamente a los municipios o agrupaciones de municipios de Bizkaia de menos de 50.000 habitantes con el fin de sufragar parte de los costes externos en los que podrían incurrir los municipios en la preparación de propuestas y documentación requerida para su participación en programas europeos.

Diru-laguntzei buruzko foru dekretu horrek Bizkaiko Foru Aldundiko Europari buruzko Orientazioa Bideratzeko Bulegoak egiten duen lana osatuko da. Izan ere, bulego horren helburua da Europan finantzaketaren arloan dauden deialdiei buruzko informazioa ematea Bizkaiko Foru Aldundiari eta lurraldeko udalei eta finantzaketa hori lortzeko aukerei buruzko eta tokiko proiektuak Europak egiten dituen deialdietan sartzeko aukerari buruzko aholkularitza eskaintzea.

Este próximo Decreto de Subvenciones viene a complementar la labor que está realizando la Oficina de Orientación Europea de la Diputación Foral de Bizkaia cuyo objetivo es informar a la propia Diputación Foral de Bizkaia, así como a los ayuntamientos del Territorio sobre las convocatorias de financiación europea existentes, ofreciendo asesoramiento sobre las posibilidades de obtener dicha financiación y sobre el encaje de proyectos locales en convocatorias europeas.

c.- Arauaren xedea

c.- Objeto de la norma

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek Europako finantzaketa-programa eta -ekimenetan parte har dezaten sustatzea, 2018an Europar Batasunaren programa eta ekimenetan proiektuak aurkezteko laguntza teknikorako eta kanpoko aholkularitzarako diru-laguntza emanez.

Fomentar la participación de los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia en programas e iniciativas de financiación europea, subvencionando las labores de asistencia técnica y asesoría externa que tengan por finalidad la presentación de proyectos en programas e iniciativas de la Unión Europea durante el año 2018.

d.- Planteatutako arazoa konpontzeko egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).

d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.

Tokiko proiektuak Europako deialdietan aurkezteak eragindako kanpoko kostuak ordaintzeko udalerriei laguntza emateko diru-laguntzen dekretu bat onartzea elementu positibo bat izan daiteke Europako deialdietan parte hartzea sustatzeko.

Se considera que la aprobación de un Decreto de Subvenciones destinado a colaborar con los municipios en el pago de los costes externos derivados de la presentación de proyectos locales en convocatorias europeas puede ser un elemento positivo que facilite su participación en las convocatorias europeas.

Diru-laguntza horiek lehia askearen bidez emango dira, hau da, diru-laguntzak eskabideak heldu ahala emango zaizkie eskubidea duten eskatzaile guztiei, dagoen aurrekontua agortu arte edo deialdiaren indarraldia amaitu arte.

La concesión de las citadas subvenciones se realizará mediante el sistema de libre concurrencia, esto es, se otorgará la subvención, por orden de llegada, a todos aquellos solicitantes que tengan derecho, hasta agotar el presupuesto disponible o llegar a la fecha de vigencia de la convocatoria.

e.- Arau-proposamenak ukitutako xede-taldeak, zeinei zuzendu behar zaien.

e.- Públicos objetivos afectados por la propuesta normativa y a quienes se debe dirigir.

Foru dekretu honen onuradun izan daitezke, eskabidearen datan indarrean dagoen biztanleen azken udal-erroldaren arabera, 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten Bizkaiko udalerriak edo udalerri-elkartzeak.

El Decreto Foral se dirigirá a los municipios o agrupaciones de municipios de Bizkaia de menos de 50.000 habitantes de acuerdo con el último padrón municipal de habitantes vigente a la fecha de la solicitud.